

CALASANZ KIDEAK

Nori zuzenduta: 10 - 12 urte bitarteko haurrak

Gaia: Sustraiek sarean konektatzen dira (Itaka Escolapios), fraternitate eta erlijiosoen arteko Misio Partekatuan funtzionatzen duena.

Helburua: Eskolapioen zerbitzura dagoen Sarearen indarra ikustea.

Jarduera: ITAKA ESCOLAPIOSEN SAREA JOSTEN

Materialak:

Kolore ezberdinetako artilea

Balore eskolapioen irudiak

Erruki eta letra hitzak inprimatuta

Proiektuen izenak 6 aldiz inprimatuta: (ESKOLA JANGELAK, HARRERA ETXEAK, IKASTETXE SAREA, HELDUEN ALFABETATZEA, BOLUNTARIOTZA, GIZARTE ETA HEZKUNTZA ZENTROAK).

Otoitz batekin hasiko gara Lucas 5: 1-7

Behin batean, jendea gainera zetorkion Jesusi, Jainkoaren mezua entzuteko; Jesus Genesaret aintzira-ertzean zegoen. Eta bi ontzi ikusi zituen ur-bazterrean: arrantzaleak, ontzitik jaitsita, sareak garbitzen ari ziren. Igo zen bietako batera, Simonenera, eta ontzia lehorretik pixka bat aldentzeko eskatu zion; gero, eseri eta jendeari irakasten ziharduen ontzitik. Hitzaldia amaitu zuenean, Simoni esan zion:

–Jo itsas zabalera eta bota sareak arrantzurako.

Simonek erantzun zion:

–Maisu, gau guztian eginahalak egin eta ez dugu ezer harrapatu; baina, zuk diozunez gero, botako dut sarea.

Hala egin zuten eta, hainbesteko arrain-pila harrapatu zuten, sareak puskatzeko zorian zeuden. 7 Beste ontziko lagunei keinu egin zieten laguntzera etortzeko; hurbildu ziren eta bi ontziak ia-ia hondoratzeraino bete zituzten.

Fedearen garrantziaz eta besteak zerbitzatzeaz hausnartuko dugu. Gure ekintza onak zabal daitezen, beste batzuk inplikatu behar ditugula konturatzen gara, josten goazen sarea handitzen doa arrain gehiago sartu ahala eta sare zabaltze hau ondo joan dadin beharrezkoa dugu Jainkoaren eta beste pertsona batzuen laguntza. Jesusek norberaren mugetatik eta beldurretatik haratago joateko gonbidatzen gaitu.

Jardueraren garapena:

Sarea josten: Lurrean 6 puntu markatuko ditugu borobil bat osatuz. Puntu bakoitzaren gainean proiektu baten izena eta irudia jar dezakegu eta taldeko gazte bat egongo da proiektu honen arduradun.

CALASANZ KIDEAK

Jarraian, balore eskolapioen sinboloak edo irudiak banatuko ditugu zirkunferentziatik nahi diren proiektuen artean kokatuz. Zirkuluaren erdian 2 hari zuzen jarriko ditugu gurutze moduan non erruki eta letra hitzak azalduko diren: **fedearen (Errukia) eta ezagutzaren (Letrak)** irudikatuz, Calasanzen lema.

Azalduko diegu eskolapioen balore bakoitzak Itaka escolapios sarea osatzen laguntzen duela honen oinarri izanik eta proiektu baten edo ezberdinen beharrei erantzunez. Beraz, gazte arduradun bakoitzak bere proiektuak zein baloreen behar dituen azaldu beharko du, eta hauengana artile zati bat luzatuko du. Proiektu bakoitzetik nahi dugun hari kopuru atera daiteke. Pixkanaka guztion artean sare handi bat josten joango gara. Sare hau hasierako gurutze hura oinarritzat dugula, Jainkoak proiektu guzti eta balore guztien artean lotura eta indarra jartzen duelaren sinbolo moduan.

Amaitzeko, bakoitzak bere harietara korapilo bat egiten die guztion sarea eta konpromisoa indartuz. Sinbolikoki egin dugun hori ahoz ere elkarbanatuko dugu, gure ingurua hobetzeko konpromiso bat hartuz edo indartuz (boluntariora, proiektuetan parte hartzea...).

Sare bat elkarrekin ibiltzea da eta bide honetan hari batek huts egiten badu, sareak altxatzen eta aurrera joaten laguntzen dio. 25 urte pasa dira Itaka Escolapios-ek bere sarea josten hasi zenetik eta asko dira proiektuak mantentzeko murgiltzen diren boluntarioak. Boluntariora hori funtsezkoa da Jainkoa zerbitzatzeko.

Azken sarearen argazkia atera eta sare sozialen bidez partekatu

Eranskinak:

Balore eskolapioen irudiak

CALASANZ KIDEAK

BOLUNTARIOTZA

ENPATIA

ZINTZOTASUNA

ESKER ONA

LANKIDETZA

APALTASUNA

ERANTZUKIZUNA

ERRESPETUA

JUSTIZIA

PAKEA

BERDINTASUNA

NATURA ZAINZEA